

Elikagaien burdin biodisponibilitatea

(Iron bioavailability in foods)

Urdampilleta Otegui, Aritz

Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Farmaziako Fak. Fisiologia Saila. Pº de la Universidad 7. 01006 Vitoria-Gasteiz
aritz.urdampilleta@ehu.es

Gómez-Zorita, Saioa

Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Farmaziako Fak. Farmazia eta Elikagaien Zientziak Saila. Pº de la Universidad 7.
01006 Vitoria-Gasteiz
saioa.gomez@ehu.es

Martínez-Sanz, José M.

Nutriaktive. Kirol Planifikazioaren Aholkularitza Zientifiko-Teknikoa.
Av. Dr. Jiménez Díaz, 19. 03005 Alicante
josemiguel.martinez@nutriaktive.com

Jaso: 30.03.2012

BIBLID [ISSN: 1577-8533, eISSN: 1989-2012 (2012), 12; 189-209] Onartu: 14.11.2012

Jakien burdinaren biodisponibilitatea, xurgatu eta gorputzak erabilitatako burdin (Fe) kantitatea da. Biodisponibilitatean eragiten duen faktore nagusia Fe-ren forma kimikoa (Hemo edo Ez-Hemo) eta honen xurgapenean eragiten dituzten beste faktore dietetiko-nutrizionalak dira. Hau dela eta honen xurgapena handiagotu edo murrizten dituzten egoera fisiologiko zein komposatuak hartu behar ditugu kontutan. Anemian ferropenikoaren prebentzio edo tratamendurako eta zenbaitek egoera fisiologikoetan (haurdunaldia, adoleszentzia edo kirolariak kasu) burdin galera handiak izaten dira, eta oso garrantzitsua iruditzten zaigu faktore dietetiko-nutrizional hauek kontutan edukitzeari, anemia ferropeniko egoerei aurre egiteko.

Giltza-Hitzak: Burdina. Dieta. Biodisponibilitatea.

La biodisponibilidad del hierro de los alimentos es la cantidad de hierro (Fe) que el cuerpo utiliza tras su absorción. El factor principal que actúa en la biodisponibilidad es la forma química del Fe (Hemo o No-Hemo), y otros factores dietético-nutricionales influyen en la absorción del mismo. Con respecto a esto, hay que tener en cuenta las situaciones fisiológicas o compuestas que aumentan o disminuyen su absorción. En determinadas situaciones fisiológicas (como el embarazo, la adolescencia o en el caso de los deportistas) suelen darse grandes pérdidas de hierro, y nos parece muy importante la toma en consideración de estos factores dietético-nutricionales para hacer frente a situaciones de anemia ferropénica.

Palabras Clave: Hierro. Dieta. Biodisponibilidad.

La biodisponibilité en fer alimentaire est la quantité de fer (Fe) absorbée par le corps pour ses besoins. Les principaux facteurs influant sur la biodisponibilité sont la forme chimique du fer (hémérique ou non hémérique) et les causes d'ordre diététique et nutritionnelles influant sur son absorption. Ainsi, il faut tenir compte à la fois des composants et des situations physiologiques influant sur l'augmentation ou la diminution de l'absorption du fer. Dans certaines situations physiologiques (cas des femmes enceintes, des adolescents ou des sportifs) où les pertes en fer sont importantes, il nous semble essentiel de tenir compte de ces facteurs diététiques et nutritionnels, pour la prévention et pour le traitement de l'anémie ferriprive.

Mots-Clés : Fer. Régime alimentaire. Biodisponibilité.

1. SARRERA

Herrialde industrializatuetan arazo nutrizional prebalenteena burdin-urritasuna da, elikagaietako burdin-ingesta eskasa elikagaien arteko interferentziak, mezu dietetiko-nutrizional desegokiak eta gizartearen eskakizun berriak (kaloria baxuko dietak) direla medio (Vidal, 2001).

Ikerketa internazional baten arabera herrialde industrializatuetan, umeen %15ak inguru burdin dietetiko kantitate eskasak hartzen dituzte (Yip, 1998). Hala ere, kezka gehien sortarazten gaituena, burdin ingesta nahiko hartzendutenek ere, anemia ferropenikoak pairatzen dituztela da, batez ere zenbait egoera fisiologiko eta adin talde berezietan, hala nola: haerdunaldian, haur jaio berriean (batez ere haur goiztiarretan), nerabeetan eta hauek emakumezkoak direnean.

Adin talde eta egoera fisiologiko hauetan, burninaren beharrak handiagoak dira eta hau dela eta burdinaren ingesta nahikoa izan dakin, zenbait aspektu dietetiko-nutrizional kontutan edukitza beharrezko da, honen biodisponibilitatea erabat aldatu daitekelako bere forma kimikoa (burdin hemo edo ez hemoa) edo beste elikagaietan izan dezakeen interakzioen arabera, bere xurgapena handiagotu edo asko gutxiagotzen baita.

Mineral honen eskakizun minimoak ez dira ohiko dietarekin betetzen, arrazoi ezberdinak direla medio, hala nola; argaltze dietak, burdinean oparoak diren jakien ospe txarra (odolkia, gibela, haragi gorriak), landare-dieten areagotzea. Zentzu honetan, zergatia burdinean oparoak diren jakien ez kontsumitzean egon daiteke, edota nutritiente honen baliagarritasun baxua aurkezten dutelako, nagusiki xurgatze inhibidoreengatik eta burdin hemiko eduki baxuagatik (Olibares, 1999).

Anemia ferropenikoa hain ugaria dela ikusirik adin talde eta egoera fisiologiko berezietan, eta haur jaio berriean ere, honen erreserbek berebiziko garrantzia izan dezakela ikusirik, burninaren biodisponibilitatea handiagotu edo gutxiagotzen dituzten edoera eta faktore dietetiko nutrizionalak aztertzea eraman gaitu, haerdun dauden emakume, nebezaro (batez ere nesketa, hile-rokoaren odol galerengatik) eta kirolarietan estrategia dietetiko-nutrizional egokiak burutzeko oso baliagarri izan daitekelako.

2. JAKIEN BURDIN BIODISPONIBILITATEA

Ikuspuntu biologikotik, burdin (Fe) modu aipagarriak daude, eta hauexek dira: oxidatua edo ferrikoa (Fe^{3+}) eta mugatua edo ferrosoa (Fe^{2+}). Oxidatu egoeran eta 4 baino pH altuagoan, Fe oso disolbaezina da, azido ahul bezala jarduten baita eta beste konposatuek erraz kelatzen dute.

Gizonezko heldu batean Fe kantitate hurbildua lau gramokoa da, horrela banatuta: hemoglobina (~2,5g), erreserba nagusiki hepatikoak (~1g) eta mioglobina eta metal-dependenteak diren beste proteina entzimatiko batzuk

(~0,3g). Eguneko, gizon heldu osasuntsu batek bere Fe totalaren %~0,025 galtzen du (1mg-ren baliokide dena), zeina dietak ordezkatu behar duen (Conrad, 2002).

Gizakion dietan Fe-a burdin heminiko (Fe-Hemo) bezala haragietan aurkitzen da, edo burdin ez-heminiko bezala (Fe-Ez Hemo) landare-jatorriko elikagaietan, gatz mineraletan eta animali jatorriko hainbat jakietan, esnea eta arrautzak bezala. Fe-Ez Hemo-a mineral iturrik handiena da garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleriaren dietatan. Fe-hemo-a haragi gorri zein zurietaen topatzen da eta bereziki odolean.

Biodisponibilitatea, dietan lortutako Fe-a biologikoki erabilitzen den era-ginkortasun bezala definitzen dena (Wienk, 1999), elikagaietan hornitzen den Fe motaren, bere kantitatearen eta elikagaiak janariarekin konbinatzen diren moduaren (Lynch, 1997), Fe-ren egoera nutrizionala eta Fe-aren mugikortasuna ehunen artean berritzea eskatzen duten hainbat gertaeren egoera edo honen beraren xurgapenaren arabera doa, hala nola: eritropoyesia areagotua, egoera hipoxikoak eta infekzioak (Halberg, 1981). Honela, Fe-ren xurgapena areagotu egiten da metal-urritasuna, anemia hemolitiko eta hipoxia bitartean; prozesu kutsagarri edo handigarrietan, ordea, honen xurgapenaren gutxitzea dator.

Elikagarrien eta zehazki mineralen biodisponibilitatean eragina daukaten faktoreak, bi talde handitan sailkatzen dira: estrintseko motako faktoreak edo dietetikoak eta intrinseko motako faktoreak edo fisiologikoak. Gu bereziki faktore dietetikotan zentratuko gara.

2.1. Faktore dietetikoak

Faktore dietetikoen barruan, burdinaren xurgapenean, haragi-proteinak, azido organikoak, azido askorbikoa (C bitamina), kaseinofosfopeptidoak, fruktooligosakardoak (FOS), polifenoleak, fitatoak, zuntz disolbaezinak eta kaltzioa, fosforoa, edo zink-a bezalako mineralak burdin-biodisponibilitatean eragiten dute.

Mineral honen biodisponibilitatean eragina daukan faktore nagusienetako bat bere forma kimikoa da. Burdina naturan honako moduetan aurkezten da: burdin heminiko (Hemo) eta burdin Ez-Hemo bezala. Hemo motako burdina animali jatorriko elikagaien parte da soilki, bai hemoglobina zein mioglobina bezala.

Ez-Hem burdina nagusiki landare-jatorriko elikagaietan aurkitzen da, baina baita ere esnean, eta arrautzean, zeintzuk mota honetako burdin baino ez daukaten barnean. Bestalde, haragiek eta arrainek Fe-Ez Hemo-a dauakte, totalaren %66-an. Bere xurgapena faktore dietario ugarik zehazten dute, zeintzuk honen disolbagarritasuna erraztu edo ekiditen duten.

Ez-Hemo burdinak pH azidoa behar du bere burua murriztu eta Fe-3-tik Fe-2-ra pasatzeko; forma ferrosoa, pisu molekular baxuko konplexu disolbagarriei gehitu datzai oke. Badira Fe-2-a estabilizatzen laguntzen duten hainbat

konposatu; azido klorhidrikoak, elikagaien azido organikoak (nagusiki askorbikoa) eta zenbait aminoazido (zisteina...), hala nola. Hala ere, elikagaietan aurkitzen diren beste konposatu batzuek bere xurgapena zailtzen dute. Hauen artean aurkitzen dira: fitatoak, oxalatak, taninoak, polifenoleak eta zenbait elikagarri ez-organiko, kaltzioa eta aluminioa bezala.

Elikagaien burdin eduki altua daukaten arren, beren biodisponibilitatea aldatu egiten da %1 etik %30a arte, besteari beste, Fe motaren arabera eta dietako beste elikagarriek pH gastrikoak disolbagarritu edota murriztu dezaketen eraginkortasuna handitu edo txikitu dezakelako. Azken ekintza hau, enterozitoaren mintz apikalean dagoen DMT1 transportatzialeari dagokio edo metalaren metabolismoari eragiten dio (Sandstrom, 2001).

Arau orokor bezala, elikagai taldeen arabera, xurgapen portzentaiak ondokoak dira: Landarekiak, %10; arraina %20, soia eta bere eratorriak %20, eta haragi gorriak %30 (Ensminger, 1995). Hala ere esan, hauek daukate burdinaren xurgapena bestelako fakote batzuen menpe ere dago, batez ere ez hemo motako jatorrikoa denean, landare jatorriko elikagaietan batez ere, nahiz eta aurrez esan bezala esneak edo eta arraultzak ere ez hemo motako burdina duten bereziki.

Konstante bezala jasotzen da xurgatutako metalaren %80 eta %90 artean hemoglobinaren sintesirako erabiltzen dela (Fairweather, 2001), horra hor mineral honek anemiatan daukan garrantzia. Bestalde, iraizpen-bide espezifikorik ez dela kontuan hartzen badugu, berdin berdin erabil litezke biodisponibilitate eta xurgapen terminoak.

Elikagaien Fe eduki altua daukaten arren, beren biodisponibilitatea aldatu egiten da (aurrez esan bezala %1 etik %30 arte), burdin motaren arabera (hemo edo ez hemo) eta dietako beste elikagarri batzuek pH gastrikoak disolbagarritu edota murriztu dezakeen eraginkortasuna handitu edo txikitu dezakelako, honek, batez ere burdin ez-hemikoan du eragina. Efektu hauetako batek edo batzuen konbinaketak, konposaketa batzuek Fe-ren biodisponibilitatearen inhibitzaile edo estimulatziale gisa garrantzia hartzea ekar dezake (Miret, 2003).

Fe Hemo-aren biodisponibilitatea oso altua da, eta bere xurgapenean eragina daukate ondokoek: irentsitako haragi kantitateak (Carpenter, 1992) eta kaltzioak, zeina faktore inhibitzailea den (Pallares, 1996; Hallberg, 1992).

Hala ere, kontuan hartu behar dugu Fe Hemo, Ez-Hemo bihurtzen dela, izoztearen, tratamendu termikoaren eta pilaketaren ondorioz (Lombardi-Boccia, 2002; Purchas, 2003).

Dieta batean kontsumitutako Fe-Hemo kantitatea aztertzeko orduan, honek, hutsegitea ekar dezake. Kasuen gehiengoan, literaturan, elikagai gordinen datuak ematen dira, sukaldatzerakoan gertatzen den Fe-Hemo-aren galera kontuan izan gabe. Geroz eta efektu termikoa bortitzagoa izan, geroz eta Fe-Hemo galera handiagoak izango ditugu. Beraz erabilitako sukaldaritza teknikek ere berebiziko garantzia izan dezakete, burdinaren biodisponibilitatea handiagotu edo gutxiagotu dezakelako.

2.1.1. Burdin xurgapena murrizten duten konposatuak

Burdin xurgapen inhibitzaile diren konposatuuen barruan, esatea, faktore gehiengok Fe-Ez Hemo-an eragiten dutela (Bendich, 2001). Hala eta guztiz ere, konposatu inhibitzaileen barruan fitatoari emango diogu garrantzi gehien, gaur egun gomendatzen diren dietatan (zerealak, lekadunak eta hazi oliotsuak) ugari aurkitzen baita.

Bestalde, beste faktore inhibitzaile batzuk ere badira, hala nola; polifenoleak, zuntz disolbaezina eta mineral jakin batzuk, fosforoa, manganesoa, kobrea, kaltzioa edo zinka. Kobreak eta manganesoak ere efektu inhibitzailea izan dezakete baina nabarmentasuna ez da horren argia (Rossander, 1991). Zuntzaren paperi dagokionez ere, zenbait zalantza ageri dira literatura zientifikoan.

Azido fitikoak, burdina bezalako katioiak elkartzeako, haien artean interakzioak sortuz, ahalmen handia daukaten sei fosfatu talde ditu bere barnean (Akte, 2005). Ekintza honek garrantzi handia dauka, garatu gabeko zenbait herrialdeetan, lekale eta zereal ugaridun dietak dituztela kontuan hartzen badugu. Elikagaien dauerak fitatoaren efektu inhibitzaileak proportzionalki erlazionatzen da Fe-Ez Hemo-aren xurgapenarekin. Hala ere, efektu hau, haragia (Baech, 2003) edo C bezalako burdin xurgapen potentziatzaleen presentzian minimizatu daiteke, azido fitikoaren degradazio prozesuaren bitartez bitamina (Davidsson, 2001; Jovani, 2000).

Fitatoaren fosfato taldeen degradazioarekin (fitasengatik edo egosketa tenperatura oso altuengatik) beste mineral batzuen biodisponibilitatearekin oztopatzeko ahalmena murrizten da (Hurrell, 2003). Zentzu honetan, elikagaien burdin-indarzte programetan, fitatoaren biodisponibilitatea murriztea ere garrantzitsua da, hau, fitasak gehituz eta C bitaminaren edukia areagotuz egiten da. Gaur egun zenbait landare genetikoki manipulatzen ari dira, fitato edukia murrizteko asmoz.

Mineralen, kaltzioaren, fosforoaren eta zinkaren efektu negatiboa enterozitoen mintzeko transportatzialeengatik leihan daudelari zor zaio, oxidazio egoera berritzen dute edo Fe-aren metabolismoa oztopatzten dute (Sandstrom, 2001).

Kaltzioak garrantzi berezia dauka, Fe-Ez Hemo-aren biodisponibilitatean esku hartzeaz gain, Fe Hemo-en biodisponibilitatean ere hartzen duelako esku, eta efektua dosi dependentea da, horrela, biodisponibilitatea %50era jaistea lortuz, dosi hau dependentea izanik: 40mg azpitik ez du eragozten, baina bai, 40-300 mg kaltzio inguru, jogurt baten baliokide dena (Hallberg, 1998).

Beste ikerketa batzuek haragiaren efektu positiboari kontra egiten diola diote (Bendich, 2001). Hala ere, Fe Hemo-aren biodisponibilitatea murrizten duela jakina da, bakar-bakarrik mineralak soluzioan administratzen direnean (esnean bezala) eta ez erabateko janarietan administratzen denean (Halberg, 1991; Grinder, 2004). Honek, burdin-defizita edo anemia ferropenikoa dagoenean, esnea elikagairik okerrena dela pentsarazten digu. Hau jakinik eta

esneak bromatologikoki duen balio handia ikusirik egun gizarteko poblazio handi batek pairazten dituen arazoetan, osteoporosis kasu, emakumezkoetan bereziki, bi mineral hauek batera ez artea aholkatzen da.

Zinka eta burdinaren arteko erlazioa oso altua izan behar da interakzio altuak eman daitezen, adibidez, bada Fe-ren biodisponibilitatean %50eko murrizketa bat, Zn/ Fe proportzioa ur-soluzio batean 5:1 baino altuagoa denean. Efektu berbera ez da ikusten bi mineralak erlazio molar berean aurkitzen direnean, elikagai nahasketa batean (Whittaker, 1998).

Kuprearen papera nahiko paradoxikoa da, ehun ezberdinen burdin-mobilizazioetan laguntzen duten Cu-dependenteak diren entzimak baitaude (Sharp, 2004), baina honekin batera, in vitro burututako ikerketek, Cu-ak Fe-Ez Hemoaren disponibilitatea murrizten duela diote, bi metal hauek mintz transportadore (DMT1) berbera erabiltzen dutela eta (Arreondo, 2005).

Haragiaren proteinen kasuan ez bezala, beste arrautz proteina batzuk, esneak eta esnekiek burdin-xurgapenari kalte egiten diote (Beard, 1996; Conrad, 1993). Adibidez, esnearen kaseinek burdin-xurgapena inhibitzen dute gizakiarengan. Badirudi serina eta treoninaren fosforilazioak burdin-hondakinak eta beste mineral batzuk elkartzen dituela, burdinaren interakzio ionikoagatik eta hau hestetik urrun askatuko litzateke xurgapen ez horren eraginkorra edukitzeko (West, 1986).

Dena dela, efektu hau irenste aurretikoa kaseinaren hidrolisi entzimatikoaren bitartez murritzu daiteke, honek, burdinaren solubilitatea areagotuko luke hestearen eta horrela biodisponibilitatea hobetuko litzateke (Hurrell, 1989; Kim, 1995). Aztertu denez, kaseinofosfopeptido hauek katioi dibalenteak bereganatzeko eta hesteko pH-a disolbagarri mantentzeko ahalmen handia daukate bereziki 1,25-β-kaseinofosfopeptidoek (Galdi, 1988). Hala ere, kafeinofosfopeptido hauek burdinaren biodisponibilitatean eragiten dituzten hobekuntzak ezin dira simpleki disolbagarritasunaren areagotzearekin eta burdin-xurgapenarenkin justifikatu, hau da, eritropolesian, burdin erabilpen eraginkorraz eta gibelean ferritina moduan pilaketa egokiaz lagunduta joan behar du.

Honela, burdin-urritasuna daukaten arratoietan burdin gehigarri ezberdinen bitartez (sulfato burdintsua, erabateko β-kaseina eta burdinaren arteko batuketa eta 1,25-β-kaseinofosfopeptidoa eta burdinaren arteko batuketa) egindako zenbait esperimentuk frogatu dute kaseinofosfopeptidoak eta bereziki 1,25-β-kaseinofosfopeptidoak hemoglobina mailatan eta ehunetako burdin-pilaketan emaitz hobeak ematen dituztela (Aït-oukhatar, 1997; Aït-oukhatar, 1999). Zenbait teoriek dioten bezala, plasma-esnearen proteinek igorritako biologikoki aktiboak diren peptidoen presentziaren ondorioz, burdina β-kaseinofosfopeptidoari batuta, Fe-Ez Hemo-an ikusi ez den beste bide batek xurgatu lezake (Chabance, 1998). Perés eta kolaboratzaileek (1999b)-an ikusitakoaren arabera, burdin kantitate zati bat β-kaseinofosfopeptidoari elkartuta, endozitoek xurgatzen dute, ohiko garraio pasibo eta aktiboaz gain, hau izan litekeelarik burdin-disponibilitatea hobetzea azaltzen duen arazoia.

Xurgapen bide espezifiko honek ere, aurretiko ikerketak justifica litzazke, zeinek azaldu duten burdinak, kaseinofosfopeptidoei elkartuta, burdina eta kaltzio edota zinka bezalako mineralen arteko interakzioa prebenitu dezakela (Ait-oukhatar, 1997; Péres, 1997). Efektu hau arratoietan ikusi ahal izan da, Fe-Zn-ean ohikoak direnak baino interakzio baxuagoa eragiten duela (Perés, 1999). Mineral hauen arteko loturak peptido elementu konplexuen aztarnak sortzen ditu lumenean, eta mineral hauen xurgapena hobetzen du modu ioniko askean jarraitutako bidea ez den bide ezberdin baten bitartez, horrela, mineralen arteko interakzioa murriztuz (Péres, 1999).

Biodisponibilitate honek, bai disolbagarritasunaren edozein areagotzeren ondoriozko burdin eta kaseinofosfopeptidoen elkartek sorturikoa, zein beste burdin-mineralekiko interakzioen prebentzioak edo xurgapen-bide jakinek sorturikoak, esne-peptidoak elikagaiak indartzeko osagarri egoki bihurtzea permititzen du, egun jaio berri diern haurrentzako eta lehenengo bi urtetako haurrentzat bereziki prestaturiko esne artifizialetan eabili ohi da. Hala ere, beharrezkoa dela iruditzen zaigu ikerketak ildo honetan jarraitza, izan ere, oraindik ere, animalietan lortutako emaitza guzti hauek gizakietan estrapolatu ahal izateko.

Zuntzari dagokionez, ohituraz ospe txarra ezarri izan zaio negatiboki eragiten diolako mineral-xurgapenari, hala ere esparrua oso eztabaitua ageri da, *in vitro* eta *in vivo* egindako ikerketetan. Torre eta kolaboratzaileen (1991) arabera, zuntz disolbagarriak (pektina eta guar goma) ez dauka horrenbesteko efekturik mineralen biodisponibilitatean. Van Dyck eta kolaboratzaleek (1996) aldiz burdin-biodisponibilitatearen murrizketa nabaritu zuten, dietako zuntz disolbagarriaren (gari-zahia) gorakadagatik.

Bestalde, arratoietan egindako ikerketa batzuen arabera, zuntzak ez du burdin-xurgapenean eraginik (Kim, 1996; Levrat-Verny, 1999), baina esan beharra dago, arratoiak peptina eta fitatoa hidrolizatzeko ahalmen handia daukatela, gizakiekin alderatuta, heste-fitasa asko baitaukate (guk ia ez daukagu). Beste autore batzuek diote, zuntzaren efektua baino, mineral-xurgapenaren murrizketa zuntz ugari daukaten elikagaien ezpurutasunari zor zaiola, zuntz disolbaezinari elkartzen zaizkion fitatoak izan daitezke adibidez (Brune, 1992; Larsson, 1996).

Hala ere kontutan izan behar dugo, bi elikagai jaorriko zuntz hauak (pektina eta guar goma eta gari-zahia) mota ezberdinako zuntzak direla, eta agian burdin xurganepean zuntz mota bakoitzek eragin ezberdina izan dezakela.

Polifenoleak ere inhibitzaile bezala jarduten dira. Hauak, landareetatik, barazkietatik, leketatik, frutatik, fruitu lehorretatik eta te-a, ardoa, garagardoa, kakaoa, kafea, e.a.-tik datozen ia elikagai guztiak aurkitzen dira. Polifenoleen ekintzatik postulatutako mekanismotako bat, burdinaren kelazioko prooxidante bezala jarduten dela da. Konposatu fenolikoetako galloyl (te berdean dagoen osagai garrantzitsua) taldea, honelako inhibizio motaren egitura erantzule bezala inplikatua izan da (Brne, 1991).

Zelula-hazkuntzetan egindako esperientzietai azido tanikoak, burdinarekiko 1:0,1-eko erlazio molaren, burdin-xurgapena %92-ra arte inhibitu dezakela frogatzen da, honek azaltzen digunez, tanikoak, fitatoak baino efektu inhibitzaile boteretsuagoa izan dezake (Glahn, 2002). Honekin batera, aran urinak eta mahats gorri urinak burdin-xurgapena %31 eta %67an inhibitu dezakete hurrenez hurren (Boato, 2002). Ardo gorriak ere dieta mixtoetan burdin biodisponibilitatea murrizten duela frogatu zuten (Lucarini, 2000; Yip, 2003), kafeak bezala, %8-13ko murrizketa probokatzen duena (Van Dyck, 1996).

Honekin batera, gizakiei egindako ikerketetan, adibidez, Cook eta kolaboratzaileek (1995)-enean, burdin-xurgapena, ardo zuriaren bitartez, 2 eta 3 aldiz handiagoa izatera iritsi zela erakutsi zuten. Antza denez, ardo zuriak, ardo gorriak baino polifenol kontzentrazio baxuagoa dauka, azken honek, 10 aldiz handiagoa den polifenol kontzentrazioa dauka. Bestalde, beste ikerketa batzuetan ondorioztatu dutenez; te beltzak, te berdeak, kakaoak eta kafeak Fe Hemo-aren xurgapena murrizten dute (Hurrell, 1999; Samman, 2001).

Pate eta kolaboratzaileek (1993), emakume korrikalari talde batean aztertu zuten, ferritina seriko mailak estatistikoki baxuagoak zirela bazkalostean tea edo kafea hartzen zutenean.

Dietako polifenoleak hiru talde nagusietatik etor daitezke: azido fenolikoak (askotan kafean daudenak), flabonoideak (te berde hostoetan eta kakao-lean daudenak) eta flabonoidez edo flabonoide eta azido fenolikoaren arteko konbinaketaz sortutako polimerazio konplexuko produktuak (te beltzean daudenak). Horrela, diotenez, te beltza burdin inhibitzaile boteretsuena izan diteke, bere egitura polimerikoa dela eta, galloy estere osagarri ugariduna (Hurrell, 1999).

Laburtuz, Fe-Ez Hemo-aren xurgapen inhibitzaileen barne hartzen dira; polifenoleak, landareetan, leketan edo ongarrietai aurkitzen ditugunak; fitatoak, prozesatu gabeko zerealen, intxaurren, kakahueteen eta leken %2-a direnak; zuntz dietetiko disolbagaitza (zerealen zahian aurkitzen dena), zinka, kobrea edo fosfato kaltzikoa bezala zenbait mineral, kaseina moduko hainbat proteina lakteo bezala (Crichton, 2001). Fitatoaren eta polifenolen efektu inhibitzailea, janarian C bitamina erantsita jazarri diteke (Gay, 1998).

2.1.2. Burdin xurgapena obetzen duten konposatuak

Burdin-xurgapena mesedetzen duten konposatuak barruan, azido askorbiokoak (C bitamina), haragi jatorriko aminoazidoek, A vitamink eta fruktoologo-sakaridoek (FOS) paper garrantzitsua jokatzen dute.

C bitaminaren efektua, Fe-Ez Hemo-a murrizteko eta disolbagarritasuna pH altuan mantentzeko daukan ahalmenari egokitzen zaio (Teucher, 2004). Efektu promotore hau, azido fitikoa bezalako burdin-xurgapena inhibitzeko ahalmen altua duten elikagaietan ikusten da (Hallberg, 1986). Baita ere frogatu da C bitaminak hausr-formuletako burdin biodisponibilitatearen portzentaia hobetzen

duela (Jovaní, 2000). Hala ere, dieta mixtoetan, burdin defizita duten emakumeetan, C bitaminaren efektua horren altua ez dela ikus daiteke, eta efektu minimoa lortu ahal izateko 25mg C bitamina kantitate minimoa hartu behar dela (Díaz, 2003).

“Haragi faktorea” apartekoagoa da. 60. hamarkadan, animali jatorriko proteinek Ez-Hemo burdin-xurgapenean laguntzen zutela proposatu zen, prozesu honetan, animali-jatorriko proteina prozesu honetan nahastuta zegoela ondorioztatuz. Geroagoko ikerketetan, haistik, ikusi da esne-proteinak; kaseinak (Chabance, 1998; Perés, 1999); Fe²⁺-a eta arrautzaren proteinatako bat (koal-bumina) oxidatzen duen proteinak; metala kelatzen duen proteinak, burdin-xurgapenean efektu positiborik erakusten ez dutela (Emery, 1992; Hurrell, 1988). Badirudi haragi jatorriko aminoazidoak direla Ez-Hemo burdinaren xurgapena areagotzen dutenak, bereziki histidina eta sulfidrilo elkarketatan oparoak diren aminoazidoen edukiarekin erlazionatuta dagoelako. Hortaz, aktina eta muzina eduki altua duten haragiak dira Ez-Hemo burdinaren biodisponibilitatea areagotzen dutenak (Mulvihill, 1998). Horregatik eman behar zaio garrantzi handiago “haragi faktoreari” eta ez aminoazido faktoreari, edo jakin beharko litzateke aminoazido batzuk jokatzen dutela paper berezia buirdinaren xurgapenean. Era beran, lagungarri izando da haragiak berak duen Fe Hemo kantitatea, berau xurgatzeko.

A bitaminak ere paper garrantzitsua jokatzen du burdinaren metabolismoan, batez ere garapen bidean dauden eta bitamina honen gabezia duten herrialdeetan ikusten da paper hau. Esan beharra dago, literatura zientifikoan ez dago bi mikronutriente hauek interakzionatzen duten nabarmentasun argirik, hau da, ez da zehazki azaltzen zergatik daukan efektu positiboa burdin biodisponibilitatean. Hala ere, bitamina honek Fe erreserben mobilizazioan zein Fe-aren beraren berrerabilpenean, heritropoiesirako, alegia, laguntzen duela postulatu da (Bloem, 1995). Bestalde, postulatu da A bitaminak zein betakarotenoek Fe-Ez Hemo-aren disolbagarritasunean laguntzen dutela, fitatoak bezalako hainbat inhibitzileen efektuari jazarri (Garcia-Casal, 1998; Garcia-Casal, 2000; Layrisse, 1997). Venezuelan, 1993an, erriboflabinak, niazinak, tiaminak eta A bitaminak osatutako elikagai indarpen programa batean, anemia prebalentzia %9,3 murriztu zen, eta burdin defizita %15,8-an aurreko urteko anemia prebalentziarekin alderatuta (Layrisse, 1996).

Digeriezinak diren oligosakaridoen (OND) efektuei dagokienez, zehazki **fruktooligosakaridoak (FOS)**, zenbait ikerketa egin dira, kaltzioa, magnesioa, zinka eta burdina bezalako hainbat mineralen xurgapena estimulatzen duela ondorioztatuz (Scholz-Ahrens, 2001). Hala eta guztiz ere, burdin-xurgapenean daukan efektua nahiko eztabaidegarria da. Animalietan, FOS-a burdin-xurgapenarekin hobetzen denaren ziurtasuna dago. Delzenne eta kolaboratzaileek (1995)ek hauteman zuten FOS-aren adizioak burdin atxikitzea %10era arte areagotzen zuela, era berean, kate motzeko fruktooligosakaridoen (FOScc) adizioarekin arratoi anemikoen berreskurapena hobetzen zuten eta Fe Hemo zein Ez Hemo-aren xurgaopena hobetuz anemia prebenitu zezaketela (Ohta, 1999). Antza denez, efektu hau azido organikoei (laktatoa) kate

motzeko gantz-azidoen (AGCC) efektuei zor zitzaien, FOScc-aren fermentaziotik abiatutako lumenaren bakteriak produzitutakoak.

Hala ere, gizakietan prebiotiko hauen efektua ez da horren erabateko. Gizakiengan ez da burdin-xurgapena hobetzearen mekanismo zehatza ezagutzen, baina uste denez gaur egun erabilten diren prebiotikoen (oligofruktosa eta inulina) efektu nagusia heste-floran eragiten duen substratu moduko efektuarekin erlazionatuta dago, modu ez espezifikoan, baina honek hartzidura, AGCC ekoizpen eta azidifikazio luminal tasak estimulatuko lituzke (Scholz-Ahrens, 2001).

Zentzu honetan badirudi FOS-ak mineral-xurgapenean efektu eragingarria duela, azido fitikoaren efektu inhibitzailea jazarri. López eta kolaboratzaileek (2000) arratoietaan hauteman zuten FOS-ek burdin-xurgapeneko fitatoen efektu inhibitzailea neutralizatzen zutela.

2.2. Faktore fisiologikoak

Faktore intrinseko edo faktore fisiologikoak ere garrantzitsuak dira, honela, aipatzea mineral honen gorputz-erreserba mailak xurgapenaren portzentziaian behin betiko eragiten duela. Horrela, estatus mineralak, adinak, egoera fisiologikoa, sexuak, jariapen azidoek, hipoxiak edo heste-iragaiteak mineralaren biodisponibilitatea hazi edo murritzarazi dezakete.

Mineral baten estatusa organismoan bere xurgapenari eragiten dion faktore fisiologiko garrantzitsuenetako bat da. Hainbat ikerketek frogatu dute burdin-urritasun zorrotzak dituzten gizabanakoek xurgapen portzentziaia goratzeko ahalmena garatzen dutela, kondizio normaletan dauden pertsonekin alderatuta (Cook, 1990). Haurdun dauden emakume anemikotan fenomeno hau agertzen da eta Ez Hem burdinaren xurgapen tasa % 5 eta 13% artean areagotzea lortzen da (Sharma, 2003).

Eritropoiesia, hipoxia eta infekzioen abiadurak Fe-ren xurgapen eta mobilizazio abiadura berritzen dute, eta hortaz, bere biodisponibilitatea. Hepzidina (Heps), 25 aminoazido inguruko peptido hepatikoa, metalaren homeostasiarekin erlazionatuta dagoela aldarrikatu da (Fleming, 2005).

Jariapen azido normala daukaten gizabanakoekin alderatuta, burdin xurgapen baxuagoa existitzen da aklorhidria duten gaixoetan. Urin gastrikoak burdin-xurgapenean eragiteko bitartekari den mekanismoa ondo argitura ez dagoen arren, badirudi urin gastrikoaren osagarrietako batek edo digestio bitartean ekoiztutako medio azido berak, burdin-xurgapenean hobekuntzak eragingo lituzke. Bestale, hustutze gastrikoaren eta heste-iragaite denborak digestio bitartean eratzen diren espezie mineralak eta hauen solubilizazioa finkatu litzazke. Orokorrean, mineralen kontaktu denbora luzeagoak traktu gastro-hestearrean solubilizazioa eta ondorengo xurgapena errazten ditu (Benito eta Miller, 1998).

3. ESTRATEGIA NUTRIZIONALAK

Orokorki, burdin defizita prebenitzeko zein tratamendurako hiru estrategia nutrizional aurkituko ditugu: 1) elikagaien aberastea, 2) gehigarrien administrazioa eta 3) bitartetza dietetikoa; burdinean oparoak diren elikagaien kontsumoa areagotuz eta burdin-xurgapena erraztu eta inhibitzen duten elikagaiak aldenduta.

Elikagaien aberasteari dagokionez, esatea, estrategia honek garrantzi handia izan duela osasun nutrizionalaren hobekuntzan, bereziki garapen bidean dauden herrialdeetan eta baita ere herrialde industrializatuetan. Estrategia hau zenbait gaixotasun prebenitzeko hasi zen, hala nola: bozioa (gatz iodatua gehituta), errakitsmoa (D bitaminan aberastutako esnea), bebiberia, pelagra eta gaur egun anemiak edo haurdun daudenen tutu neuralaren akatsak (zereal aberastuak burdina, B12 eta folikoa) prebenitzeko (Darnton-Hill, 2002).

FAOren arabera (1996), zenbait elikagai modu egokian aberasteko arauak modu honetan finkatuta daude, herrialde bakoitzari eta honen beharrei moldatuz:

- Kontsumo patroi iraunkor bat izatea, gehiegizko kontsumoaren fluxu baxuarekin.
- Hautatutako herrialdean ohituraz kontsumitzen den elikagaia.
- Biltegiratzerakoan egonkortasun ona aurkeztea.
- Koste baxua izatea.
- Elikagaia eta gehituko zaion elikagarriaren artean interakziorik ez egotea.
- Disponibilitatea estatus ekonomikoak kondizionatuta ez egotea.
- Ingesta energetikoarekin erlazionatuta egotea.
- Elikagarria elikagaiari homogeneoki gehitu ahal izatea.

